



**ADUNAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## HERRIKO JAIAK

Herriko jaiak igaro dira aurten ere eta balorazioa egiteko unea iritsi zaigu. Horretarako bilera bat egingo dugu eta zuek bertan izatea gustatuko litzaiguke.

Gustoko jaiak izan al dira?

Zer aldatuko zenuke?

Hurrengo urterako proposamen berririk ba al duzu?

Kuadrillen egunak aldaketak behar al ditu antolakuntzan?

.....?

Denon artean, iritziak elkar banatuaz, hurrengo urterako jai hobeak antolatuko ditugulakoan, etor zaitez bilerara.

**Irailak 21, 19:00etan, Kultur Aretoan**

Jai Batzordea

## AGENDA

**Irailak 21 (Astelehena) – 19:00** Herriko jaien balorazio bilera (Kultur Aretoan)

**Irailak 22 (Asteartea) –** Kurtso eta extra-eskolarretara apuntatzeko azken eguna

**Irailak 23 (Asteazkena) – 17:00-19:00** Bizikleten mantenu tailerra (Plazan)



**ADUNAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## AUTOBUS ZERBITZUAN ALDAKETAK


Irailaren 1etik aurrera aldaketak ezarri dira Tolosaldeko autobus zerbitzuetan. 2014ko abenduan martxan jarritako zerbitzuei honako zerbitzu berriak gehitu zaizkio (gogoratu linea guztiak eta zerbitzu berriak [www.lurraldebus.eus](http://www.lurraldebus.eus) eta [www.tolosaldeabus.net](http://www.tolosaldeabus.net) kontsulta ditzakezue):

- TO-08 linea (Larraul-Asteasu-Zizurkil-Villabona-ADUNA): bidai osagarri bat gehitu da linea honetan, astelehenetik larunbatera (Larrauletik 16:25ean irtengo da eta Adunara 16:50ean iritsiko da).
- TO-07 linea (Asteasu-Zizurkil-Villabona-Irura-Anoeta-Tolosa): Tolosako Zezen plazako geralekutik abiatuko da, 15:30ean, Villabona-Asteasu lineak, astelehenetik ostiralera, 16:00etan eskaintzen zuen zerbitzua. Horrekin batera, itzulerako zerbitzu osagarri bat eskainiko da Asteasutik, 16:10ean.

Honako lineetan ere aldaketak izan dira: TO-01 (Tolosa-Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa), TO-02 (Tolosa-Ibarra-Berrobi-Elduain-Berastegi), TO-03 (Tolosa-Txarama-Lizartza-Orexa), TO-04 (Tolosa-Ibarra-Belauntza-Leaburu-Gaztelu) eta TO24E linea (Alegia-Orendain).

Informazio guztia [www.lurraldebus.eus](http://www.lurraldebus.eus) web gunean dago eskuragarri ("Lineak eta ordutegiak" izeneko atalean) eta baita [www.tolosaldeabus.net](http://www.tolosaldeabus.net) webean ere.

**GARRANTZITSUA:** Adunara heltzen diren lineak erabili nahi izanez gero, beharrezkoa da Mugi/Lurraldebus txartelaren jabe izatea (udaletxean eska dezakezu) eta aldezturik 900 234 555 telefonora deitzea edo mugikorretik SMS bat bidaltzea (kasu honetan, Adunara heltzen diren geltokien kodeak urte hasieran etxeetan banatu genuen foilletan agertzen dira –baita beheko web guneetan ere-).



Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: [aduna@udal.gipuzkoa.net](mailto:aduna@udal.gipuzkoa.net) - [www.aduna.net](http://www.aduna.net)